# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia | Iruña, 2003ko otsailaren 19a | 13. ZK.


A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**


—Aholkularitza txostena, Nafarroako administrazio publikoetako montepioetan afiliatuta dauden funtzionarioen eskubide pasiboen araubideari buruzko azterlan aktuarialei buruzkoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.)

**G Saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Aholkularitza txostena, Nafarroako administrazio publikoetako montepioetan afiliatuta dauden funtzionarioen eskubide pasiboen araubideari buruzko azterlan aktuarialei buruzkoa, Kontuen Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko uztailaren 3an eginiko bilkuran, erabaki zuen Nafarroako administrazio publikoetako montepioetan afiliatuta dauden funtzionarioen eskubide pasiboen araubideari buruzko azterlan aktuarialei buruzko aholkularitza-txostena, Kontuen Ganberak egina, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko uztailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Aholkularitza txostena, Nafarroako administrazio publikoetako montepioetan afiliatuta dauden funtzionarioen eskubide pasiboen araubideari buruzko azterlan aktuarialei buruzkoa, Kontuen Ganberak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (2. or.).

**II.** Aztertu beharreko arazoen aurrekariak eta deskripzio generikoa (3. or.).

**III.** Xedeak (4. or.).

**IV.** Norainokoa, metodologia eta mugak (5. or.).

**V.** Ondorioak (7. or.).

**Eranskinak**

**1.** Nafarroako foru administrazioetako montepioen azterlan aktuarialetan erabilitako aldagaiak, hipotesiak eta taulak (16. or.).

**2.** Ordainketa probableen urteko finantza-fluxuak (Eguneko pezetatan) (23. or.).

**3.** Erretiroko pentsioen zenbatekoen adibideak (26. or.).

### I. SARRERA

2001eko maiatzaren 21ean, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, erabaki zuen, besteak beste, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak eskatuta, Kontuen Ganberari eskatzea txosten bat egin dezan, “kalkulu aktuarialetako adituek behar diren azterlanak egin ditzaten funtzionarioen eskubide pasiboen araubidearen zenbait alderdi aztertzeko; hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuko eta Iruña, Tafalla eta Tuterako montepioetan afiliatuta dauden funtzionarioen araubideari buruzko alderdi hauek:

a) Nafarroako administrazio publikoek egungo montepioan afiliaturiko funtzionarioekin hitzarturiko pasiboen egungo sistema aplikatzetik etorriko diren konpromisoen kostu aktuariala.

b) Funtzionario horiek Gizarte Segurantzan sartzeak dakarren kostu aktuariala.

c) Montepioa egungo maila eta ordainsarietara gaurkotzeak dakarren kostu aktuariala.

d) Gaurkotze horren beraren kostu aktuariala, kudeaketaren ereduaren ordez kapitalizazioan oinarrituriko eredua ezarriz gero.

Eskaera hori Parlamentuak 2001eko maiatzean Nafarroako Gobernuak aurkezturiko lege proiektua, “Nafarroako administrazio publikoaren montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboak” gaiari buruzkoa, Gobernuari itzuli izanaren ondorioa da.

Aurreko eskaera horren ondorioz, Kontuen Ganberak bere jarduera programan sartu zuen lana.

2001eko ekainaren 11n, Kontuen Ganberako lehendakariak, berak eskatuta, agerraldia egin zuen Nafarroako Parlamentuko Mahaia eta Eledunen Batzarraren aurrean, aurreko lan horren planifikazioaren txostena eta aurreikusiriko egutegia aurkezteko. 2001eko ekainaren 18an Mahaiak eta

Eledunen Batzarrak aurreko planifikazioarekin ados zeudela jakinarazi zuten.

Planifikazio horren arabera, txosten hau 2002ko martxoaren 29a baino lehen aurkeztu behar zen Parlamentuan, datu baseak 2002ko urtarrilaren barrenean eskura izateko konpromisoarekin; halere, 2002ko martxoaren 15era arte ez zuen esku artean izan ganbera honek azterlan aktuarialak egin ahal izateko datu baseak, eta beraz, txostenaren prestalanak eta aurkezpena atzeratu egin ziren. Inguruabarraren berri eman zitzaion Parlamentuko lehendakariari 2002ko apirilaren 8an.

Aholkularitza txosten hau beste baten jarraipena da, alegia, "Administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen sistemak Foru Ogasunean izanen dituen eraginei" buruzkoa, Parlamentuak eskatuta hau ere, Kontuen Ganberak 2001eko otsailean emanikoa (2001eko ekainaren 6ko 62. NPAO). Nolanahi ere, bi txostenen emaitzak ezin dira zuzenean alderatu, helburua eta norainokoa desberdinak baitira.

## II. AZTERTU BEHARREKO ARAZOEN AURREKARIAK ETA DESKRIPZIO GENERIKOA

Foru montepioei atxikitako funtzionarioen eskubide pasiboen egoeraren ezaugarriak zehatz-mehatz azaldu ziren lehenago aipatutako txostenean, eta horretara jo beharko da.

Halere, txosten honen ondorioetarako, bestean gai honen inguruan plazaratzen ziren ondoko ondorio hauek nabarmendu behar ditugu:

*“Egungo egoerari buruzko diagnostikoa*

*Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko funtzionarioen pasiboen sistemaren egungo egoerak ondoko alderdiak ditu bereizgarri:*

*1. Foru funtzionarioak pasiboen araubide batean baino gehiagotan daude. Hauexek dauzkagu:*

*• Nafarroako Gobernuaren Montepioa.*

*• Toki entitateetako funtzionarioen montepio orokorra.*

*• Iruñeko montepioa.*

*• Tuterako montepioa.*

*• Tafallako montepioa.*

*• Gizarte Segurantza.*

*• Estatuko klase pasiboak.*

*Aniztasun hori Foru Komunitatearen ibilbide historikoaren emaitza da, eta zaildu egiten ditu pasiboen araubidearen ikuspegi eta kudeaketa integralak. Gainera, gorabeherak eta bazterkeria sortzen du enplegatuen artean, bai pentsioei buruz dauzkaten itxaropenei eta bai finantzaketarako egiten dituzten diru-ekarpenei dagokienez.*

*Halaber, aniztasuna gertatuko da ondokoa dela eta: sistema batzuen pentsioak etorkizuneko Nafarroako aurrekontu orokorren kargura izanen dira –montepioak–; beste sistema batzuek –klase pasiboak eta Gizarte Segurantza–, ordea, ez dute pentsioengatiko gasturik sortzen, funtzionarioa erretiratzen den unean haien ordainketa beste administrazio batzuen kargura izanen delako.*

*2. Foru Komunitateko funtzionario publikoen pasiboen prestazioak egokitzeko edo eguneratzeko legez ezarritako aurreikuspenak behin eta berriz bete gabe utzi dira. Halaber, denboran zehar joera ezberdin eta kontraesankorrak antzeman daitezke aurreikuspen horietan, kasu batzuetan foru montepioei eutsi eta montepio horiek eguneratu direlako eta beste batzuetan Gizarte Segurantzan integratzera jo delako. Joera horiek direla eta, funtzionario berriak Gizarte Segurantzan sartu dira eta antzinako sistema eguneratuari eutsi zaio jada itxita dagoen kolektibo batentzat.*

*3. Montepioei gagozkiela, ondokoak azpimarratu behar ditugu:*

*• Antzinako lege batek arautzen ditu, eta nabarmena da haiek eguneratzeko hasieran aurreikusitako epeak ez direla betetzen ari.*

*• Aurrekoaren ondorioz, halako eten bat dago aktiboen eta pasiboen ordainsarien artean, eta horrek eragina du bai sortutako prestazioetan, bai sortzeko daudenetan eta bai haien finantzaketan ere, aktiboek jasotako ordainsariak ez baitira haien hartzekodun pasiboak finantzatzeko erreferentzia. Esan dezakegu eten hori desegokia eta inkoherentea dela edozein antolamendutako giza baliabideak kudeatzeko.*

*• Gainera, montepioen artean ere, funtzio publikoan noiz sartu, horren araberako ezberdintasunak antzeman daitezke, eta gerta daiteke, esate baterako, zerbitzuan 35 urte eman dituzten bi funtzionarioren pentsioen artean % 30eko aldea egotea ondokoa dela eta: prestazio pasiboa bosturteko metagarrien arabera zenbatesten den ala ez -hau da, funtzionario horiek funtzio publikoan 1973ko uztailaren 1a baino lehen ala egun hori eta gero sartu ziren.*

*• Halaber, Nafarroako Gobernuak eginiko estimazioen arabera, 35 urteko antzinatasuna duten funtzionarioentzat, egungo Montepioaren pentsioak Gizarte Segurantzan jasoko zituztenak baino*

*% 20 eta 40 bitarte txikiagoak dira; ehuneko horiek bosturteko metagarriak aplikatzearen ala ez aplikatzearen baitan daude. Halere, komeni da aipatzea montepioko funtzionarioen kotizazioa araubide orokorrekoa baino txikiagoa dela eta Gobernuak ez duela espresuki kuota gisa ordaintzen enplegu-emailearen kuota.*

*Azken ondorioa*

*Ondorioz, amaierako laburpen gisa, ganbera honek ondokoa adierazten du:*

*• Foru Komunitateko enplegatu publikoen pasiboen sistemaren gaurkotzea presako beharrizan bat da, ezin luza daitekeena, foru legeetan jada aurreikusita dagoena eta gutxienez ere 1983tik hona eskatzen ari izan dena. Aukera emanen du Nafarroako administrazio publikoen langileak zuzen kudeatzeko, egoera desegoki bati konponbidea emanda."*

Garrantzi bereziko beste lege-ondorioen artean, komeni da halaber gogoraraztea 1992ko urtarrilaren 1etik eta 1994ko urtarrilaren 1etik Nafarroako Gobernuan eta Nafarroako toki entitateetan, hurrenez hurren, sartutako funtzionario berriak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartu direla. Horrenbestez, itxi egin zen foru montepioetan funtzionario berriak hartzeko bidea, eta haietan dauden funtzionarioak, eskubide pasiboen eraginetarako, "iraungi beharreko" egoerara igaro ziren: guztira, jardunean dauden 4.800 funtzionario dira, gutxi gorabehera.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak zenbait eskumen bereganatzeak, gure ondorioetarako, ondokoa ekarri zuen: Nafarroako funtzionarioen multzoan sartzea Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean egoteaz gainera Gizarte Segurantzaren menpekoa den Estatuko klase pasiboen araubide bereziari ere atxikita dauden langileak. Horrela, Nafarroako Gobernuari dagokionez soilik, hauxe zen 2002. urtean jarduneko langile finkoen araubidearen araberako banaketa:

| Araubidea | Langile finkoak | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Foru Diputazioaren montepioa | 3.122 | 18 |
| Gizarte Segurantza | 10.740 | 60 |
| Estatuko klase pasiboak | 3.918 | 22 |
| Nafarroako Gobernua, guztira | 17.780 | 100% |

Ikus daitekeenez, montepioko langileek Nafarroako Gobernuaren langile finko guztien ehuneko 18 egiten dute.

Azkenik, komeni da gogoratzea 2000ko irailean Nafarroako Gobernuak aurkeztu zuela Parlamentuan "Nafarroako administrazio publikoaren montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko foru lege proiektua", montepioetan afiliaturiko langileen eskubide pasiboen egoera konpontzeko xedearekin. 2001eko maiatzean, ordea, Parlamentuko Osoko Bilkurak erabaki zuen proiektu hori Nafarroako Gobernuari itzultzea.

## III. XEDEAK

Kontuan harturik Parlamentuaren eskaera, komeni da aurretik zehaztapen batzuk egitea, lanaren helburuen nondik norakoak ongi ezartzeko:

• Sistema indardunaren kostu aktuariala jardunean dauden funtzionarioena –4.800 inguru– nola pasiboena da –4.700 inguru–.

• Gainerako kostu aktuarialak egun jardunean dauden langileak hartu ditu xedetzat, langile pasiboen eskubideak dagoeneko sortuak baitira horien araudi zehatzari jarraikiz.

• Aurreikusitako programazioaren arabera, kalkulaturiko kostu aktuarialak –kasu batzuetan 2122[1]. urteraino luzatzen direnak– 2001eko azaroaren 30ekoak dira.

• Txosten honen helburua ez da eskubide pasiboen araubide bakoitzak eskaintzen dituen prestazio motak eta zenbatekoak aztertu eta alderatzea. Halere, honekin batera dago aipatutako sistemetan erretiro pentsioek egiten duten zenbatekoen adibidea –ikus 3. eranskina–.

Hortaz, lan honekin helburu hauei heldu nahi zaie:

1. helburua. Jardunean dauden funtzionarioen eta pasiboen egungo erregulazioak eragiten dituen eskubide pasiboen kostu aktuariala zein den zehaztea.

2. helburua. Jarduneko funtzionarioak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartzeak ekarriko lukeen kostu aktuariala kalkulatzea.

3. helburua. Jardunean dauden funtzionarioen eskubide pasiboen kostu aktuariala zehaztea,

*(1) Kalkuluen arabera, ordurarte eraginen die gastua Foru Komunitateko administrazio publikoei.*

egungo arauak horien lansari sistema indardunera egokituta.

4. helburua. Aurreko gaurkotzearen kostu aktuariala kalkulatzea, baina kapitalizazioko kudeaketa eredu bat aplikaturik[2].

## IV. NORAINOKOA, METODOLOGIA ETA MUGAK.

IV.1. NORAINOKOA ETA METODOLOGIA

Foru Komunitateko montepioetan afiliaturiko funtzionarioen eskubide pasiboen araubidearen kostu aktuarialei buruz Nafarroako Parlamentuari aholku emateko txostena egin du Kontuen Ganberak.

Eskaria kontuan harturik, hona lanak hartu dituen norabideak:

1. Aferarekin zerikusia duten administrazio guztiei datu baseak eskatu, azterlan aktuarialak egiteko beharrezkoa zen informazioa eskuratzeko.

2. Aurreko azterlanak egiteko oinarri sendoa izateko, agertoki eta hipotesi koherenteak eta tinkoak definitu.

3. Azterlan aktuarialak gauzatzea kanpoko enpresa batekin kontratatu.

Biltzar honen asmoa zen azterlan aktuarialak egiteko erabilitako agertokiak eta hipotesiak aldez aurretik adostea Nafarroako Gobernuarekin eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lantalde baten bidez; Nafarroako Gobernua, aitzitik, ezetza eman zion gonbitari, zeregin horrek haren eginkizunen gainetik zegoela adierazirik.

Ondoren, Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari “Azterlan aktuarialetan erabilitako aldagaiak, hipotesiak eta taulak-Zirriborroa” biltzen zuen agiri bat igorri zitzaien, zerbitzu teknikoek edukia aztertu eta iradokizunak egin zitzaten. Federazioaren oharrak baizik ez ditugu jaso.

Behin datu baseak jaso eta agertokiak eta hipotesiak definiturik, txostenaren norainokoa azterlan aktuarialen kostuak kalkulatzera bideratu zen, 2001eko azaroaren 30eko data abiapuntutzat harturik.

Metodologiari dagokionez, Kontuen Ganberak aplikatu ohi dituen programak aplikatu dira, helburuak eta inguruabarrak kontuan harturik; programa horiek Ganberaren auditoretza gidetan jasotzen dira, eta Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako Sektore Publikoko Auditoretza Printzipio eta Arauen barrenean garaturik daude. Honako hauetan, zehatz esanda:

• Administrazio hauei eskatu zitzaien informazioa:

a) Nafarroako Gobernua: Foru Komunitateko montepioa eta udal montepio orokorra.

b) Iruñeko Udala

c) Tuterako Udala.

d) Tafallako Udala.

e) Nafarroako Parlamentua, Nafarroako Suitzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa eta Kontuen Ganbera.

• Eskatutako informazioa honi buruzkoa da, funtsean:

a) Aktiboak: datu pertsonalak, pentsioa eragin dezaketen kontzeptuak, 2001. urteko lansariak osotara eta balizko onuradunak.

b) Pasiboak: datu pertsonalak, 2001. urterako pentsio mota eta zenbatekoa eta balizko onuradunak.

• Datu pertsonalen inguruko informazio guztia pertsona zehatzen inolako identifikaziorik gabe eskatu zen, arau indardunei jarraikiz, ezaugarri pertsonalen berri izatera mugatuta -jaiotze eguna, sexua, administrazioan sartu zen eguna, zerbitzuak ezagutzeko eguna etab.

• Aurreko informazio horren bidez eta metodologia aktuariala erabiliz prestatu ditu kontrataturiko enpresak Parlamentuak eskatutako azterlanak. Azterlanek hartzen duten denbora, berriz, 2122. urteraino ailegatzen da aztertutako kasu batzuetan, eta horixe da, kalkuluen arabera, funtzionarioek eta horien onuradunek sortutako pentsioek administrazioei gastua eraginen dien azken epea.

• Txosten honetan aurkeztutako datu guztiak 2001eko azaroaren 30eko pezeta konstanteen egungo balioan daude adierazirik, salbu eta 2. eranskina, pezeta arruntetan baitago.

• Foru Komunitateko pasiboen sistema indardunaz -gaurkotua zein gaurkotu gabea- eginiko azterlanen kuantifikazioa, azterketa eta emaitzen alderaketa erraztearren, gure iritziz zentzuzkoe-

*(2) Banaketa ereduak ez bezala, kapitalizaziokoak pentsiorako zenbateko bat bermatzen du langileak eta enplegu emaileak ordaindutakoaren arabera, bai eta baliabide horien kudeaketak emandako finantza etekinen arabera ere.*

nak diren hipotesiei emandako balioen arabera egin da; horixe da "oinarrizko eredua" deitu dena, eta ezaugarri nagusi hauek dituena:

a) Langileen ehuneko 60k nahitaez hartu beharreko adinean hartzen dute erretiroa, ehuneko 20k borondatezkoa hartu daitekeen lehen adinean eta gainerakoa bi multzoen artean banatzen da.

b) Fluxuak gaurkotzeko interes tasa: ehuneko 4.

c) Alargunen lansarien eta gutxieneko pentsioen urteko gehikuntza: ehuneko 3.

d) Pentsioen urteko gehikuntza: ehuneko 2.

Nolanahi ere, emaitza horiek osatzearren, txostenari erantsi zaio emaitzen laburpena, kostutan, aldagai horiez beste balore batzuk kontuan harturik lortu direnak -25 agertoki guztira-. Hona baloreak:

a) Gaurkotzeko interes tasa: Ehuneko 3 – 3,5 – 4 – 5 – 6.

b) Alargunen lansarien eta gutxieneko pentsioen hazkundea. Ehuneko 2,25 – 2,625 -3 - 3,75 - 4,5.

c) Pentsioen hazkundea: Ehuneko 1,5 – 1,75 - 2 - 2,5 - 3.

d) Erretiroa nahitaez hartu beharreko adinean hala eginen duten funtzionarioen ehunekoa: Ehuneko 0, 40, 60, 80 eta 100.

e) Erretiroa borondatez hartu daitekeen adinean hala eginen duten funtzionarioen ehunekoa: Ehuneko 100, 30, 20,10, eta 0.

• Pasiboen sistema indarduna lansarien egungo sistemara gaurkotzeak ekar dezakeen kostua kalkulatzeko, eta gaurkotze horren gaineko araurik ez dagoenez, haren 18 mailak egungo 5ekin parekatzetik abiatu gara, pentsioa eragiten duten lansariak errealekin ordeztu dira eta kotizazio muga gisa Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean indarrean dagoen gehienekoa ezarri da.

• Gizarte Segurantzan sartzeak duen kostu aktuariala iraganeko kotizazio egin gabeak gaurkotuz kalkulatu dira, erreklamatu ezin diren gorabehera estaliak direla-eta horietan den zatia deskontaturik. Horretarako kontuan hartu dira, batetik, jarduneko funtzionario bakoitzak funtzio publikoan sartu zenetik ordaindu beharko zituzkeen kotizazioen egungo balioa -kalkuluak egin dira 5etik hasita lan bizitza osora bitarte-, sortutako etekinak barne; bestalde, etorkizuneko kotizazioetarako kalkulatzen den egungo balioa ere ezarri da. Horren inguruan, azterlan honetan oinarrizko eredutzat hartu da Gizarte Segurantzak 15 urteko kuotak eta funtzionarioaren lan bizitza osoarenak eskatzen dituela.

Era berean, administrazioko lansarien mailak eta araubide orokor horri aplikatu beharreko kotizazio multzoen arteko parekatzea ezarri behar izan dira, eta horretarako, MUNPAL Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartzeko aplikatu zen berbera hartu da.

• Kapitalizazio sistemetan, aurreikusitako konpromisoak erreserba funts batzuk, aurreikusitako etorkizuneko ekarpenak berdintzen dituztenak, eratuz finantzatzeko zenbait hurbilketa daude, horrela, funts horien inbertsioetatik heldu den errentagarritasunaz baliatuz, aurreikusiriko prestazioak ordainketa erregularretan finantzatzeko berrorekatzeko plan batzuk gauzatzea lortzeko. Txosten honetan kapitalizazio sistema kolektibo bat erabili da 3. azterlanetik heldu diren aktiboen konpromisoak eta 1. azterlaneko pasiboenak finantzatzeko; horretarako, bi aukera hartu dira:

a) Lortutako kotizazio motak, behin aplikaturik balizko lansarien baturari, bide eman behar du balizko pentsioak finantzatzeko balorazioaren urtetik pentsioaren balizko azken fluxua gertatzen den urtera arte.

b) Aldizka eta urte kopuru zehatz batean, zenbateko zehatz batzuk ekartzen dira ordainketen eta finantziazioaren arteko oreka lortzeko.

Bi kasuetan, zenbatekoak edo portzentajea enplegu-emailearen eta enplegatuaren ekarpenen bidez finantzatuko litzateke, botere publikoek ezarritako mugekin.

IV.2. MUGAK ETA ZALANTZAK

1. eranskinean egindako oharrez gain, gure lanean eragina izan duten muga eta zalantza nagusiak hauexek izan dira:

A) Orokorrak.

• Azterlan aktuarial ororen oinarria da ekonomia eta finantza egoeraren gaineko agertoki eta hipotesi multzo orokor bat, eztabaidaren eta iritzien xede izan daitezkeenak, guztiak bezala. Azterlan hauetan hartutakoak antzeko azterlanetan hartzen ohi direnen isla dira.

• Hain epe luzean kostuei buruz egindako estimazio guztiek, egungo baldintza sozio-ekonomikoetan, segurtasun eta subjektibotasun falta dute, erabilitako aldagai eta hipotesiek etorkizunean izanen duten jokaerari dagokionez; hori dela eta, estimazio edo etorkizuneko proiekzio horiek

segurtasun mailan eragin eta kopuruak alda ditzakete.

B) Azterlan aktuarialen ingurukoak.

• Montepioei atxikitako funtzionarioen datu base multzo bat, administrazioek igorritakoek osatua, oinarri harturik egin dira; lehengo eta behin horien barne koherentzia aztertu da, baina egiaztatu gabe emandako datuak osatuak eta zehatzak diren.

• Montepioen eskubide pasiboei buruzko arauak zaharrak dira eta sakabanaturik daude; horrez gain, arlo honetan jurisprudentzia anitza dago, eta horren eraginez ez dago ziurtatzerik funtzionarioen artean gerta daitezkeen egoera guzti-guztiak aurreikusi izana azterlanetan.

• Ez dugu izan eskura lansariei eta dagoeneko erretiro eta ezintasuna hartutakoen adinei buruzko datu historikorik eta, hortaz, kalkulu batzuk egin behar izan ditugu.

• Montepioetan afiliaturiko langileak Gizarte Segurantzan dituen kotizazio urteei buruzko informaziorik ere ez dugu izan; urte horiek, sistema indardunaren arabera, erretiroa hartzeko unean ezagutzen dira.

• Pasiboen araubide indardunaren gaurkotzeari, Gizarte Segurantzan sartzeari eta kapitalizazio ereduari buruzko azterlan aktuarialak esparru eta testuinguru orokorrean oinarritu dira -hipotesi eta agertoki ekonomiko orokorrez gain-, ez baitago egoera horiek berariaz gaitzat dituen araurik.

Muga horiekin guztiekin ere, lana jarduketa mota honetan ohikoa den metodologiarekin eta estandarrekin egina da eta, horrenbestez ziurtatu daitezke lortutako datuak.

Txostena bost ataletan egituratu da; atal horiek bai marko orokorra eta bai egindako lanetik ondorioztaturiko helburu eta ondorioak ere agertzen dituzte. Atal hauek hiru eranskinek osatzen dituzte: azterlan aktuarialetan erabiltzen diren oinarrizko hipotesi eta aldagaiei buruzkoa bat, urtean egin daitezkeen ordainketen finantza fluxu edo korronteen pezeta korrontetako kalkuluei buruzkoa beste bat eta aztertutako sistema ezberdinetan erretiro pentsioek egiten dituzten zenbatekoen gaineko adibideei buruzko, azkena.

Aldez aurretiko lanak eta azterlan aktuarialak 2001eko azarotik 2002ko maiatzera bitarte egin ditu kanpoko enpresa kontratatuko langileek eta Kontuen Ganberako auditore batek osaturiko lan taldeak. Era berean, Biltzarraren beraren zerbitzu administratiboen, juridikoen eta informatikoen laguntza izan dugu.

Lan honetan parte hartu duten langile guztien laguntza eskertu nahi dugu.

## V. ONDORIOAK

Kontuan harturik egindako lanaren norainokoa, hipotesiak eta mugak, ondotik azaltzen dira ondorio nagusiak.

1. Nafarroako administrazio publikoetako montepioetan afiliaturiko jarduneko funtzionarioen eta funtzionario pasiboen eskubide pasiboen sistema indardunak etorkizunean ekarriko dituen konpromisoen kostu aktuariala.

Oinarrizko ereduaren emaitzak montepioetako eskubide pasiboen egungo sistema aplikatzeak etorkizunean ekarriko dituen konpromisoen kostu aktuarialean ondoko taula honetan ikusten dira (egungo balioa, pezeta konstantetan, milioitan):

| Montepioa | Aktiboak (1) | Aktiboen ekarpena (2) | Aktiboen kostu garbia (1)-(2) | Pasiboak |
|---|---|---|---|---|
| Iruña | 21.935 | 657 | 21.278 | 21.035 |
| Tafalla | 1.085 | 36 | 1.049 | 1.512 |
| Tutera | 3.931 | 112 | 3.819 | 3.852 |
| Nafarroako Gobernua | 142.595 | 4.118 | 138.477 | 88.246 |
| Udal mont. orokorra | 15.757 | 488 | 15.269 | 35.899 |
| Guztira | 185.303 | 5.411 | 179.892 | 150.544 |

Beraz, eskubide pasiboen egungo sistemak indarra izan dezakeen urteetan –2122. urte bitarte–. Foru Komunitateko administrazio publikoei ekarriko dien kostu garbi aktuariala hauxe da:

| Taldea | Zenbatekoa (pezeta konstanteak, milioika) |
|---|---|
| Aktiboak | 179.892 |
| Pasiboak | 150.544 |

Prestazioen arabera, hona hemen banaketa:

A) Jarduneko langileak.

| Prestazio mota | Ehunekoa |
|---|---|
| Erretiroa | 68,02 |
| Alargunak eta umezurtzak | 19,17 |
| Ezintasuna | 12,81 |

B) Langile pasiboak.

| Prestazio mota | Ehunekoa |
|---|---|
| Erretiroa, dagoeneko sortua | 35,28 |
| Alargunak eta umezurtzak, dagoeneko sortuak | 40,20 |
| Ezintasuna, dagoeneko sortua | 11,92 |
| Sortzeko dauden prestazioak | 12,60 |

2. eranskinean ikus daiteke zein den ordainketen finantza fluxuen banaketa denboran zehar, pezetan arruntetan, sistema honen oinarrizko eredutik heldu direnak.

Azkenik, ereduaren hipotesiek hartutako balio desberdinen arabera –nagusiki gaurkotzeko interes tasa eta nahitaezko-borondatezko erretiro portzentajea–, jardunekoen eta pasiboen aurreko kostu aktuarial garbiak aldatu ahalko dira ondoko tauletan ageri denari jarraikiz (egungo balioaren zenbatekoa, pezeta konstantetan, milioika):

AKTIBOAK

| Hipotesiak/ interes tasa | %3 | %3,5 | %4 | %5 | %6 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 232.555 | 220.848 | 209.982 | 190.483 | 173.548 |
| 2 | 207.409 | 196.768 | 186.876 | 169.084 | 153.593 |
| 3 | 199.750 | 189.462 | **179.892** | 162.670 | 147.662 |
| 4 | 191.558 | 181.640 | 172.410 | 155.787 | 141.291 |
| 5 | 183.233 | 173.688 | 164.800 | 148.785 | 134.808 |

Hipotesiak:

1.Ehuneko 100ek borondatezko erretiroa hartu daitezkeen lehen adinean hartzen dute.

2. Langileen ehuneko 40k nahitaez hartu beharreko adinean hartzen dute erretiroa, ehuneko 30ek borondatezkoa hartu daitekeen adinean eta gainerakoa bi multzoen artean banatzen da.

3. Gauza bera, portzentaje hauekin: ehuneko 60 nahitaezkoaren adinean eta ehuneko 20 borondatezkoan.

4. Gauza bera, portzentaje hauekin: ehuneko 80 nahitaezkoaren adinean eta ehuneko 10 borondatezkoan.

5. Ehuneko 100 nahitaezkoan.

PASIBOAK

| Korritu-tasa | Kostu aktuariala |
|---|---|
| % 3 | 155.655 |
| % 3,5 | 153.055 |
| % 4 | **150.544** |
| % 5 | 145.772 |
| % 6 | 141.306 |

2. Montepioetako jarduneko funtzionarioen eskubide pasiboen sistema Gizarte Segurantzan sartzeak dakarren kostu aktuariala.

Azterlan aktuarial honen bidez argitu beharreko gai nagusia da zein den foru administrazioek eta jardunean dagoen funtzionario bakoitzak funtzio publikoan sartu zenetik Gizarte Segurantzaren araubide orokorrari ordaindu beharko zizkioketen kotizazio kalkulatuen egungo balioaren zehaztapena. Gure ustez, aldagai horren zehaztapena Gizarte Segurantzarekin egin beharko litzatekeen negoziazio prozesu baten ondorioa izanen litzateke; halere, Gizarte Segurantzak zer kuota eskatzen duen, –5, 10, 15, 20 urtekoak edo lan bizitza guztiarena kontuan harturik– zehaztu da balioa.

Oinarrizko balio gisa, 15 urtekoa eta lan bizitza osoarena kalkulatu dira, eta jarduneko langileak sartzearen kostu garbi aktuarial hauek lortu ditugu (zenbatekoa, pezeta konstantetako egungo balioan, milioika):

a. 15 urtetako zerbitzuak, betetakoak

| Montepioa | Zerbitzuak, betetakoak | Zerbitzuak, betetzekoak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Iruña | 6.313 | 6.092 | 12.405 |
| Tafalla | 461 | 659 | 1.120 |
| Tutera | 1.420 | 1.841 | 3.261 |
| Nafarroako Gobernua | 59.512 | 53.898 | 113.410 |
| Udal mont. orokorra | 6.904 | 6.428 | 13.332 |
| Guztira | 74.610 | 68.918 | 143.528 |

b. Zerbitzuak, betetakoak, lan bizitza osoarekiko

| Montepioa | Zerbitzuak, betetakoak | Zerbitzuak, betetzekoak | Guztira |
|---|---|---|---|
| Iruña | 9.271 | 6.092 | 15.363 |
| Tafalla | 601 | 659 | 1.260 |
| Tutera | 1.790 | 1.841 | 3.631 |
| Nafarroako Gobernua | 88.230 | 53.898 | 142.128 |
| Udal mont. orokorra | 9.769 | 6.428 | 16.198 |
| Guztira | 109.661 | 68.918 | 178.580 |

Laburbilduz, jarduneko funtzionarioak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartzeak dakarren kostu aktuarialak 143.528 milioi pezeta egiten du –15 urteren erreklamazioa– edo 178.580 milioi pezeta –lan bizitza osoaren erreklamazioa–.

Jarduneko langileen konpromisoetarako, kostua 2043ko ekitaldiraino banatzen da, horixe baita jarduneko azkenak erretiroa hartuko lukeen azken urtea.

Betetako zerbitzuen eskakizun guztiak kontuan hartuz gero, sartzeak ekarriko lituzkeen kostu aktuarialak hauexek izanen lirateke:

| Kontuan hartutako urteak | Kostu aktuariala |
|---|---|
| 5 | 93.947 |
| 10 | 118.222 |
| 15 | **143.528** |
| 20 | 165.177 |
| Lan bizitza | **178.580** |

Kostu hauetan aldatzen diren hipotesi bakarrak dira betetako zerbitzuak kalkulatzeko baliatzen direnak, betetzeko dauden zerbitzuen kostua lehengo bera delako.

Bestalde, aintzat hartu beharko lirateke, halaber, Gizarte Segurantzak betetako zerbitzuen ekarpena dela-eta ezarriko lituzkeen ordainketa moduak. Esate baterako, ehuneko 4ko interes tasarekin eskatutako zenbatekoek honako urteko kuota hauek ordaintzea ekarriko luke, kasuan kasuko epearen arabera: (zenbatekoa pezetatan, mila milioika)

| Epea | Urteko kuota-15 urte | Urteko kuota-Lan bizitza |
|---|---|---|
| Ordainketa bakarra | 74.610 | 109.661 |
| 5 urte | 16.759 | 24.633 |
| 10 urte | 9.199 | 13.520 |
| 15 urte | **6.710** | **9.863** |
| 20 urte | 5.490 | 8.069 |

2. eranskinean ikus daitezke azterlan honen oinarrizko balioen ordainketa probableen finantza fluxuak -eguneko pezetatan-, 15 urtetan betetako zerbitzuen kostuaren amortizazioa kontuan harturik eta 1. azterlaneko langile pasiboen ordainketak ere barne harturik.

3. Montepioetako jarduneko funtzionarioen eskubide pasiboen sistemaren kostu aktuariala, lansarien sistema indardunera egokiturik.

Oinarrizko ereduaren arabera, montepioetan afiliaturiko jarduneko funtzionarioen eskubide pasiboen kostu aktuariala, lansarien sistema indardunera egokiturik, honako taula honetan dago adierazirik (egungo balioan, milioika pezeta konstantetan).

| Montepioa | Jardunekoak (1) | Jardunekoen ekarpena (2) | Jardunekoen kostu garbia (1)-(2) |
|---|---|---|---|
| Iruña | 21.568 | 1.214 | 20.354 |
| Tafalla | 1.701 | 136 | 1.565 |
| Tutera | 6.117 | 407 | 5.710 |
| Nafarroako Gobernua | 188.743 | 11.878 | 176.865 |
| Udal mont. orokorra | 21.175 | 1.521 | 19.654 |
| Guztira | 239.304 | 15.156 | 224.148 |

Horrenbestez, jarduneko langileen etorkizuneko konpromisoek Nafarroako administrazio publikoei 2122. urtera arte ekarriko dieten kostu garbi aktuarialak, lansarien sistema indardunera gaurkoturik, 224.148 milioi pezeta egiten du.

Jarduneko langile horien prestazioen banaketa hauxe da:

| Prestazio mota | Portzentajea |
|---|---|
| Erretiroa | 67,32 |
| Alargunak eta umezurtzak | 19,35 |
| Ezintasuna | 13,33 |

Sistema honetatik heldu diren ordainketen urteko finantza fluxuak, eguneko pezetatan, eta 1. azterlaneko egungo pasiboen pentsioen ordainketak 2. eranskinean ageri dira.

Ereduaren hipotesiek harturiko balioei begira, jardunekoen kostu aktuarial garbiak aldatu daitezke ondoko taula honetan ageri denaren arabera (zenbatekoa pezetatan, milioika):

AKTIBOAK

| Hipotesiak/ interes tasa | %3 | %3,5 | %4 | %5 | %6 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 305.857 | 287.435 | 269.943 | 237.822 | 209.341 |
| 2 | 268.741 | 251.290 | 234.462 | 202.827 | 174.587 |
| 3 | 257.780 | 240.697 | **224.148** | 192.820 | 164.786 |
| 4 | 246.158 | 229.495 | 213.280 | 182.365 | 154.626 |
| 5 | 234.353 | 218.125 | 202.256 | 171.781 | 144.361 |

Hipotesiak:

1.Ehuneko 100ek borondatezko erretiroa hartu daitekeen lehen adinean hartzen dute.

2. Langileen ehuneko 40k nahitaez hartu beharreko adinean hartzen dute erretiroa; ehuneko 30ek borondatezkoa hartu daitekeen adinean, eta gainerakoa bi multzoen artean banatzen da.

3. Gauza bera, portzentaje hauekin: ehuneko 60k nahitaezkoaren adinean eta ehuneko 20k borondatezkoan.

4. Gauza bera, portzentaje hauekin: ehuneko 80k nahitaezkoaren adinean eta ehuneko 10ek borondatezkoan.

5. Ehuneko 100ek nahitaezkoan.

4. helburua. Aurreko gaurkotzearen kostu aktuariala, baina kapitalizazioko kudeaketa eredu bat aplikaturik.

Azterlan honen inguruan alderdi hauek zehaztu behar dira ezer baino lehen:

• Azterlan hau ez da aurrekoak bezalakoa, kapitalizazio irizpideekin eta ez banaketa irizpideekin kudeaturiko sistema batez ari garen aldetik.

• Eragingarritasuna eta arrazoizkotasun teknikoa direla-eta, kapitalizazio kolektiboko sistema baten alde egin da montepioetako funtzionario guztientzat.

• Finantzatu beharreko erreferentzia dira jardunekoetarako espero diren pentsioak, 3. azterlanaren ondorioz lortutakoak, hau da, 239.304 milioi pezeta, eta pasiboenak, 1. azterlanaren arabera, hau da, 150.544 milioi pezeta. Beraz, kasu horretan, bi sistemen arteko aldea –kapitalizazioaren eta banaketaren artekoa–, hauxe da: kapitalizazioan kontuan hartzen da aurreko konpromisoak finantzatzeko sorturiko erreserbatik heldu den finantza errentagarritasuna.

• Dauden aldagaien artean honako hauek hautatu dira:

a. Jardunekoentzat espero diren etorkizuneko soldaten gaineko portzentaje bat.

b. Zenbait urtetan aldizka egindako ekarpen batzuk -konstanteak edo hazten doazenak.

**Etorkizuneko soldaten gaineko ehunekoa**

Abiapuntu horrekin, hau da, jardunekoek kobratzea espero diren pentsioak, 3. azterlanaren bidez lortutakoak –239.304 milioi pezeta– pasiboenak, 1. azterlanaren araberakoak –150.544 milioi pezeta– eta espero den errentagarritasun tasa, ehuneko 5 alegia, beharrezkoa litzateke egungo jarduneko langileek kobratzea espero diren etorkizuneko soldaten ehuneko 115,41eko ekarpena –2001eko soldata erreala osagarri aldakorrak kenduta– sortutako etorkizuneko konpromiso guztiak finantzatzeko. Hau da, portzentaje horrekin, funts edo erreserba bat eratuko litzateke jardunekoen etorkizuneko prestazioak, espero direnak, eta egungo pasiboenak finantzatzeko.

Hauexek dira aurreko portzentajearen xehetasunak:

| Konpromisoak | Jardunekoek kobratzea espero diren soldaten gaineko ehunekoa |
|---|---|
| Jardunekoenak | 66,64 |
| Pasiboenak | 48,77 |

Balio horiek banatuko lirateke aurrekontuko diru publikoaren eta jarduneko funtzionarioen kotizazioen artean, botere publikoek erabakiko duten proportzioan.

Ekarpen horrekin lortuko da finantzatzea, hortaz, konpromiso guztiak 2122. urtera arte, betebehar horiei aurre egiteko erreserba bat eratzen delako. Erreserba horri dirua atxikiko zaio lehendabiziko urtetik 2043. urtera arte, hori delako aztertutako taldeko azken funtzionarioa jardunean egonen den urtea.

Dena dela, aurreko portzentajea kalkulatu da ehuneko 5eko errentagarritasunarekin erreserba gauzatu deneko inbertsioen gainean. Bestelako errentagarritasun balioen arabera, finantzazio portzentaje hauek lortuko genituzke:

| Errentagarritasun tasa | Jardunekoak-Jardunekoek kobratzea espero diren soldaten gaineko ehunekoa | Pasiboak-Jardunekoek kobratzea espero diren soldaten gaineko ehunekoa | Guztira, finantzazio ehunekoa |
|---|---|---|---|
| 4 % | 79,55 | 50,04 | 129,59 |
| 4,5 % | 72,69 | 49,38 | 122,07 |
| 5 % | 66,64 | 48,77 | 115,41 |
| 5,5 % | 61,27 | 48,22 | 109,49 |
| 6 % | 56,51 | 47,71 | 104,22 |

Azterlan honen oinarrizko eredurako probabletzat hartu da ehuneko 5eko tasa.

**Urte multzo batean aldizka egindako ekarpenak**

Etorkizuneko konpromiso horiek finantzatzeko beste aukera bat da kontuan hartzea jardunekoen lansarien gaineko portzentaje baten ordez, zenbait kopururen ekarpena egitea ordainketen eta finantziazioaren arteko oreka lortzeko. Diru kopuru horiek aldaketarik gabe edo modu aldakorrean zehaztu daitezke, eta ekarpenerako epeak 10 urtetik 35 urtera bitartekoak izan daitezke.

Lortutako emaitzak, ehuneko 5eko errentagarritasun tasa batekin, honako taula honetan islatzen dira (pezetatan, milioika):

| Urteko ekarpena | 10 urte | 15 urte | 20 urte | 35 urte |
|---|---|---|---|---|
| Konstantea | 39.288 | 29.228 | 24.343 | 18.527 |
| % 1 handiturik | 37.703 | 27.482 | 22.467 | 16.328 |
| % 2 handiturik | 36.167 | 25.811 | 20.686 | 14.278 |
| % 3 handiturik | 34.681 | 24.213 | 19.003 | 12.386 |
| % 4 handiturik | 33.243 | 22.688 | 17.416 | 10.659 |

Kopuru horiek administrazio publikoen eta jarduneko funtzionarioen ekarpenen bidez eratuko dira, botere publikoek adierazitako irizpideekin bat.

Oinarrizko eredurako arrazoizkotzat jotzen da urteko kopuru bat, ehuneko 2 handitzen joanen dena 35 urtetan.

Noski, errentagarritasun tasa aldatzen badugu, zenbateko horiek ere aldatuko dira; esate baterako, ehuneko 4 edo 6ko errentagarritasuna aplikatzen badugu, ehuneko 2ko hazkundearekin ordaindu beharreko zenbatekoak hauexek izanen dira (zenbatekoa pezetatan, milioika):

| Errentagarritasuna | 10 urte | 15 urte | 20 urte | 35 urte |
|---|---|---|---|---|
| % 4 | 42.479 | 29.669 | 23.295 | 15.201 |
| % 6 | 31.351 | 22.834 | 18.654 | 13.532 |

**Kapitalizazio sistema kolektiboaren balio aktuariala**

Kapitalizazio sistema kolektibo horren egungo balioa espero den errentagarritasun tasaren araberakoa da. Hortaz, ondoko taulan ageri da egungo balio hori, ehuneko 4, 5 eta 6ko errentagarritasun tasekin (eguneko pezetatan, milioika):

JARDUNEKOAK

| Errentagarritasun tasa | Egungo balioa |
|---|---|
| % 4 | 224.148 |
| % 5 | 170.109 |
| % 6 | 131.177 |

PASIBOAK

| Errentagarritasun tasa | Egungo balioa |
|---|---|
| % 4 | 150.544 |
| % 5 | 134.612 |
| % 6 | 121.444 |

Beraz, kapitalizazioaren oinarrizko ereduaren egungo balioak, ehuneko 5eko errentagarritasun tasarekin, 170.109 milioi pezeta egiten du jardunekoen konpromisoetarako eta 134.612 milioi pezeta pasiboen konpromisoetarako.

2. eranskinean sistema honen finantza fluxuak ageri dira bi aukeretan eta ehuneko 5eko errentagarritasun tasarekin.

5. Azken ondorioa

Horrenbestez, azken laburpen gisa, Ganbera honek, aholku emateko aurreko txostenean zioen bezala, honako hau adierazten du:

• Montepioetan afiliaturiko funtzionario publikoen eskubide pasiboen sistema gaurkotzea beharbeharrezkoa da eta lehenbailehen egin beharrekoa; foru legerian aurreikusirik dago 1983az geroztik, baina gaurkotzeko ezarritako epeak behin baino gehiagotan ez dira bete.

• Urte hauetan joera ezberdin eta kontraesankorrak antzeman daitezke aurreikuspen horietan, kasu batzuetan foru montepioei eutsi eta montepio horiek gaurkotu direlako eta beste batzuetan Gizarte Segurantzan integratzera jo delako. 1992tik aurrera –Nafarroako Gobernua– eta 1994tik aurrera –toki entitateak–, funtzionario berri guztiak Gizarte Segurantzan afiliatzen dira.

• Egungo inguruabarrak hauexek dira:

a) Montepio indardunak funtzionario talde itxi bati baizik ez zaizkio ezartzen: jarduneko 4.800 funtzionario inguru -25.000 enplegatu publikoren multzo batean- eta 4.700 pasibo.

b) Montepio horiek arautzen dituen legeria zaharra da, barreiaturik dago eta ez du zerikusirik jardunekoen egungo lansariekin.

c) Montepioen barrenean desberdintasun nabarmenak antzeman daitezke, funtzionarioak funtzio publikoan sartu ziren egunaren arabera. Horrela, pentsioaren zenbatekoa ehuneko 30 txikiagoa izan daiteke, prestazio pasiboaren zenbatekoa ezartzeko sistema pilatzen diren bost urtekoena den edo bestelakoa den.

d) Era berean, alde handiak daude Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean jasotako pentsioekin konparaturik, horiek txikiagoak baitira, ehuneko 20tik 40ra bitarte, pilatzen diren bost urtekoen sistema aplikatzen den ala ez.

e) Guztira, foru administrazioetako funtzionarioak pasiboen 7 araubide desberdin daude batera: bost montepio, Gizarte Segurantza eta Estatuko klase pasiboak. Aniztasun hori traba izan daiteke langileriaren kudeaketa egokirako, eta enplegatu publikoen artean disfuntzioak eta bereizkeria eragin ditzake, bai pentsioetarako igurikapenetan bai finantziaziorako ekarpenetan.

Testuinguru horretan, Nafarroako Parlamentuak eskaturik zenbait azterlan aurkezten dira, montepio horietan afiliaturiko funtzionarioen eskubide pasiboen kudeaketaren inguruko alternatiba batzuen kostu aktuarialen gainekoak. Alternatiba horiek esparru eta testuinguru teoriko batean egin dira, ez baitugu arau erreferentzia zehatzik izan -sistema indardunaren kasuan salbu-.

Laburbiltzeko, aplikatutako oinarrizko ereduen kostu aktuarialak –2001eko azaroaren 30ean eta denboran, kasu batzuetan, 2122. urtera arte ailegaturik– hauexek izanen lirateke (zenbatekoa egungo balioan, pezeta konstantetan, milioika):

1. Foru administrazio publikoak, guztira.

A) Jarduneko langileak.

| Alternatiba | Zenbatek. | Indizea |
|---|---|---|
| Sistema indarduna | 179.892 | 100 |
| Gizarte Segurantzan sartzea –15 urte– | 143.528 | 80 |
| Gizarte Segurantzan sartzea –lan bizitza– | 178.580 | 99 |
| Sistema indarduna gaurkotzea | 224.148 | 125 |
| Gaurkotzea eta kapitalizazioa ehuneko 5eko errentagarritasunarekin | 170.109 | 95 |

Aurreko alternatiben arteko zenbatekoen aldea, funtsean, prestazioen izaeran eta kopuruan eta horien finantziazioan bilatu beharko litzateke.

Hortaz, adibide gisa, 3. eranskinean zenbait egoera aurkezten dira funtzionarioen erretiroko pentsioen zenbatekoen inguruan, sistema batean edo bestean[3]. Azterketa horretatik ondokoa azpimarratu behar dugu:

a. Montepioen sistema indardunean, erretiroko pentsioaren zenbatekoa, ia kasu gehienetan, Gizarte Segurantzaren pentsioa baino txikiagoa da, erretiroa 65 urtetan hartzen dela kalkulaturik, eta kasu batzuetan ehuneko 50 txikiagoa.

b. Sistema gaurkotuak nabarmen hurbilarazten du haren pentsioen zenbatekoa Gizarte Segurantzakora, baina ia soilik funtzionarioak erretiroa 70 urtetan hartzen badu, 40 urtez zerbitzuan aritu ondoren, gaindituko du bere pentsioak bestea, baina 65 urtetarako ezarria bada.

*(3) Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean gaur egun indarra duten betekizun eta baldintzen arabera zenbatetsia.*

B) Langile pasiboak.

| Alternatiba | Zenbatek. | Indizea |
|---|---|---|
| Sistema indarduna | 150.544 | 100 |
| Sistema indardun kapitalizatua ehuneko 5eko errentagarritasunarekin | 134.612 | 89 |

2. Montepioen arabera.

A) Jarduneko langileak.

| Montepioa | Sistema indarduna | Indizea | Gizarte Segurantzan sartzea -15 urte- | Indizea . | Gizarte Segurantzan sartzea-Lan bizitza | Indizea | Gaur-kotzea | Indizea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Iruña | 21.278 | 100 | 12.405 | 58 | 15.363 | 72 | 20.354 | 96 |
| Tafalla | 1.049 | 100 | 1.120 | 107 | 1.260 | 120 | 1.565 | 149 |
| Tutera | 3.819 | 100 | 3.261 | 85 | 3.631 | 95 | 5.710 | 150 |
| Nafarroako Gobernua | 138.477 | 100 | 113.410 | 82 | 142.128 | 103 | 176.865 | 128 |
| Udal mont. orokorra | 15.269 | 100 | 13.332 | 87 | 16.198 | 106 | 19.654 | 129 |
| Guztira | 179.892 | 100 | 143.528 | 80 | 178.580 | 99 | 224.148 | 125 |

B) Langile pasiboak.

| Montepioa | Zenbatek. |
|---|---|
| Iruña | 21.035 |
| Tafalla | 1.512 |
| Tutera | 3.852 |
| Nafarroako Gobernua | 88.246 |
| Udal mont. Orokorra | 35.899 |

Zenbateko horiek, beraz, sortutako pentsioen eta denbora tarte luze batean sortuko direnen egungo balioa adierazten dute. Nolanahi ere, behar bezala kokatzeko, ez dira hartu behar foru administrazioek denbora tarte horretan sortu beharreko gastu eta dirusarreren finantza fluxuak eta horiek aurrekontuetan duten eragina aintzat hartu gabe.

Hortaz, hurrengo taulan erakusten dira, aurrekontuetan izan dezaketen eragina antzematearren besterik ez, izan daitezkeen ordainketen finantza fluxu garbiak –2. eranskinean ageri dira horien xehetasunak, urtez urte–, alternatiba bakoitzak dakartzanak, oinarrizko ereduaren arabera (zenbatekoa eguneko pezetatan):

| Tartea | 1. azterlana. Sistema indarduna | 2. azterlana. G.Z. -15 urte- | 2. azterlana. G.Z. -lan bizitza- | 3. azterlana. Gaurkotzea | 4. azterlana Ehunekoa. | 4. azterlana. Ekarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2001-2010 | 106.909 | **194.536** | **226.061** | 105.226 | **238.109** | 156.337 |
| 2011-2020 | 147.452 | 157.918 | 173.680 | 162.340 | 190.192 | 190.574 |
| 2021-2030 | 194.867 | 82.496 | 82.496 | 234.303 | 83.227 | **232.308** |
| 2031-2040 | **199.397** | 31.042 | 31.042 | **250.065** | 9.135 | 134.587 |
| 2041-2050 | 146.332 | 9.626 | 9.626 | 187.022 | 50 | - |
| 2051-2060 | 77.077 | 2.900 | 2.900 | 99.601 | - | - |
| 2061-2070 | 24.575 | 825 | 825 | 31.858 | - | - |
| 2071-2080 | 4.018 | 221 | 221 | 5.185 | - | - |
| 2081-2090 | 516 | 47 | 47 | 664 | - | - |
| 2091-2100 | 129 | 4 | 4 | 168 | - | - |
| 2101-2122 | 20 | - | - | 26 | - | - |

